



Ikasturteko programa

ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA: FRANTSESA I-II

1. IKASGAIAREN HELBURUAK

H1. Comprendre des informations générales et spécifiques présentées oralement et dans des textes écrits en différenciant les informations détaillées lorsqu'une variété de langue est utilisée.

H2. S'exprimer oralement et interagir avec les autres (dans des textes bien organisés ou spontanés) en utilisant une prononciation et une intonation claires et naturelles, ainsi qu'un degré moyen de spontanéité, de fluidité et de respect.

H3. S'exprimer par écrit dans différents types de textes dans un registre approprié et en fonction de l'intention de communication, en utilisant de façon appropriée une gamme variée de structures grammaticales et de vocabulaire.

H4. Appliquer les connaissances linguistiques et les normes d'usage pour parler et écrire de manière appropriée, cohérente et correcte en acquérant des compétences linguistiques en matière de grammaire, de vocabulaire et d'orthographe.

H5. Connaître les principales caractéristiques socioculturelles et sociolinguistiques et servir de médiateur dans des situations de la vie quotidienne en utilisant des stratégies simples et des connaissances visant à expliquer des concepts ou à simplifier des messages, afin de transmettre des informations de manière efficace, claire et responsable.

2. IKASGAIAREN EDUKIAK

FRANTSESA I – II

UD1> Comment vous décririez-vous?

UD2> Votre environnement, vos relations sociales et familiales

UD3> La maison de mes rêves

UD4> Voyager dans la vie

UD5> Mangez-vous bien?

UD6> Allons faire du shopping!

UD7> L'avenir est entre vos mains

UD8> DELF

Ikasturteko programa

23-24 ikasturtean liburu bat erabili da ikasturte bakoitzerako. Lehenengo mailan `Grammaire essentielle du français (A1/A2)` eta bigarren mailan `Vocabulaire essentiel du français (B1)`. Kontuan hartuta liburu oso bat lehen mailarako aukeratzeak ez duela zentzu handirik, asteen 2 ordu direlako, eta 6 hilabetez, eta ikasleek bi urtez frantsesezko gutxieneko maila egokia lor dezaten, bigarren mailako jarraipenarekin lehen mailan hasiko den liburu progresibo bat egitea izan da hartutako erabakia. Hala ere, transizio horrek arazo bat sortzen du Frantsesa II n, 24-25 ikasturtean. 23-24 ikasturtean Frantsesa I ikasi zuten ikasleek, liburu luze bat izan zuten, oso gutxi erabili zena. Hori dela eta, Frantsesa II n liburu horrekin jarraituko dute. Jakina, **24-25 Frantsesa II n planning-a diseinatu beharko litzateke beste gaitasun batzuk gehituz, unitate didaktiko konpetenteak sortzeko. Liburu berriaren eredu jarraitu ahal izango da, material hori bera erabiliz. 25-26 ikasturtean, liburu berrira igarotze osoa izango da, eta liburu berria Frantsesa I eta Frantsesa II n erabiliko da.**

Kontuan izanik hizkuntzak progresiboak direla eta frantsesaren kasuan urte eta erdiko ibilbidea dela, ikasgaia bi urteetarako liburu bakarra erabiliz gauzatuko da. Liburu hau mailaz mailakoa izango da eta konpetentzia guztiak praktikatzeko ariketak izango ditu. Edukiak eta eskakizuna ere aldatu egingo dira, kontuan hartuta Frantsesa I asteen oso ordu gutxiko hautazko irakasgaia dela, eta hori lehen mailako hautazko beste irakasgaiekin alderatzen dela, horiek ez baitira hain zorrotzak. Horregatik, eskakizun-maila ez da oso handia izango, baldin eta behar diren edukiak lantzen badira. Aldiz, Frantsesa II beste edozein hizkuntzarekin aldera daitekeen eskakizun-irakasgai bihurtzen da, ebaluazio-irizpide berak eta funtzionamendu bera izanik.

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

	FRANTSESA I _UNITATE DIDAKTIKOA							
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8
1. Ebaluaketa								
2. Ebaluaketa								
3. Ebaluaketa	B	I	D	E	R	A		

	FRANTSESA II _UNITATE DIDAKTIKOA							
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3	4	5	6	7	8
1. Ebaluaketa								
2. Ebaluaketa								
3. Ebaluaketa								

Ikasturteko programa

3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki :

JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak, kontzeptuak eta kompetentziak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

JAKINTZAK JARTZEKO SAIOAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK

Trebatzeko saioak izango dira, ikasle bakoitzak modu autonomoan lan eginda eta irakaslearen laguntzarekin. Saio hauek, aurretik eskuratutako jakintzak mobilizatuta, ariketak osatzera bideratuta egongo dira.

INTEGRAZIO JARDUERAK:

Taldeka zein bakarka, zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta kompetentziarekin erlazionatutako eduki-baliabideak modu integratuan mobilizatzeko.

4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko bi froga nagusi egongo dira :

AZTERKETAK

Azterketen bitartez, edukiak eta hauen erabilera egokiarekin erlazionatutako kompetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Eduki eta kontzeptu teorikoen ulermena eta azalpena baloratuko da, bai eta azalpen horietan erabilitako erregistroa ere. Horrez gain, ariketak egoki betetzea baloratuko da. Hauek izango dira azterketa bakoitzean baloratuko diren jakintzak :

Grammaire (gramatika)

Vocabulaire (lexikoa)

Lecture (idatzizko ulermena)

Écoute (ahozko ulermena)

Rédaction (idatzizko adierazmena)

Ikasgaiko helburuak ardatz hartuta, azterketen balorazioa azterketa ebatziaren bitartez egingo da, eta ikasleek aurretiaz jakingo dute ariketa bakoitza nola baloratuko den.

INTEGRAZIO JARDUERAK

Ikasturteko programa

Integrazio jardueraren bitartez, edukiak osatzeko eta konpetentziak garatzeko aukera egongo da. Egin beharreko lanaren arabera moldatuko dira ebaluazio-irizpideak eta integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dira dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena.

GELAKO JARDUNA

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea
 - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
 - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Ikasgaiari dagozkion apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
 - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoaia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
 - a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
 - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia
 - a. Asistentzia: Ikasgaiari justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean ikasgaia ez gaituztat ematen da.
 - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
 - c. Puntueltasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
 - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
 - e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetzak: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

Ikasturteko programa

6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Hiruhileko bakoitza gainditzeko, **hiruhileko osoaren batez besteko orokorra gainditu behar da** (10 puntutik 5).

IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ikasturte amaierako kalifikazioa honela eraikiko da:

IKASTURTEKO KALIFIKAZIOA : FRANTSESA I	
ATALA	BALIOA%
1. Ebaluazioa	33,3
2. Ebaluazioa	33,3
3. Ebaluazioa : Bidera Proiektua	33,3

Frantsesa I : Ikasleek edukien kontrol bat izango dute 1. eta 2. ebaluazioan eta kontrol hori gainditzea ezinbestekoa izango da ikasgaia gaindituta izateko.

IKASTURTEKO KALIFIKAZIOA : FRANTSESA II	
ATALA	BALIOA%
1. Ebaluazioa	20
2. Ebaluazioa	30
3. Ebaluazioa	50

Batez bestekoa 5era iristen ez bada, ikasleak ohiko azterketa egin behar du.

OHIKO DEIALDIAREN KALIFIKAZIOA

Ohiko azterketan, ikasturte osoan zehar landutako edukiak eta konpetentziak baloratuko dira. Azterketa horren **balioa % 90ekoa izango da, eta gainerako % 10a, jarreraren batez besteko aritmetikoarekin osatuko da.**

Ikasturteko programa
EZ-OHIKO DEIALDIA

Ez-ohiko deialdian azterketa bakarraren bitartez gainditzeko aukera egongo da, ohiko deialdiaren prozedura berari jarraituz.

BERRESKURAPENAK

Ikasgai jarraia izanik, **ez da berreskurapeneko azterketarik egongo**. Edukien eta konpetentzien atala jarraia denez, ikasturteko batez besteko nota 5era iristen ez bada, ohiko deialdian IKASTURTE OSOKO AZTERKETA egin beharko da.

NOTA IGOERAK

Frantsesa I: Ikasturtean nota hobetzeko aukera egongo da:

1. eta 2.hiruhileko ebaluazio azterketan, nota igotzeko galdera/ariketa bat.

Frantsesa II: Ikasturteko nota hobetzeko hainbat aukera egongo dira:

- > 1. eta 2. hiruhileko ondoren, **irakurgai baten inguruko azterketa gaindituta**.
- > 1.,2 eta 3. hiruhileko ebaluazioko azterketan, **nota igotzeko galdera/ariketa bat**.
- > **Ohiko deialdiko azterketa eginda**, ikasturteko nota hobetu daiteke.
- > **Ohiko deialdian, irakurgai** baten inguruko azterketa gaindituta.

